


1



Cristina Fernández hautagai peronistak irabazi zituen Argentinako hauteskundeak

2



**Inesa Gaxenek, Bastidako andre
bipilak, adorez egin zien aurre
akusazio faltsu guztiei, harik eta
absolbitu zuten arte.**

Bi aposizio modu ditugu aurreko esaldietan:

1. Izen sintagmaren barneko izenen artean egiten da aposizioa.

Halakoetan, sintagma bukaeran ipintzen da deklinabide-atzizkia, ez beste inon. Ez da sortzen, beraz, komunztadura-arazorik.

- Cristina Fernández **hautagai peronistak** irabazi zituen Argentinako hauteskundeak.
- Argentinako presidente **Cristina Fernández**ekin batzartu ziren ordezkariak.
- Eider **zure ahizpak** esan dit.

Aposizio mota hau ez da komaz bereizi behar

(*Cristina Fernandez, hautagai peronistak,... / *Eider, zure ahizpak,...)



Mugatzailea gordetzen da, hala ere, honako kasu honetan: mugatzailea izenaren beraren osagai egina duten izen berezien kasuan. Esate baterako, *Antso Azkarra*, *Pernando Amezketarra* eta gisakoetan.

- Antso Azkarra erregeak forua eman zien Esteribarko ehiztariei. (*Antso Azkar erregeak...)



2. Izen sintagmaren ondoren datorren beste izen sintagma bat da aposizioa, komaz berezia.

Halakoetan, bi izen sintagmek daramate deklinabide-atzizki bera.

- Inesa Gaxenek, Bastidako andre bipilak, adorez egin zien aurre akusazio faltsu guztiei, harik eta absolbitu zuten arte.
- Zure adiskideekin egon naiz gaur goizean, Iruñetik etorri direnekin.
- Irazustariri, dantza-taldeko zuzendariari, omenaldia egin diote.



Erabili izan da aposizioa NOR kasuan, nahiz eta izen-sintagma beste kasu batean egon, baina tradizio urria du. Horren ondorioz, ez dirudite hobestekoak.

- ??Inesa Gaxenek, **Bastidako andre bipila**, adorez egin zien aurre akusazio faltsu guztiei, harik eta absolbitu zuten arte.
- ??Zure adiskideekin egon naiz gaur goizean, **Iruñetik etorri direnak**.
- ??Irazustari, **dantza-taldeko zuzendaria**, omenaldia egin diote.

Hortaz, halakoak baztertzea gomendatzen du Euskara Zerbitzuak.



- Zenbaitetan, perpausaren aparteko eranskin edo tarteki gisa ematen da bigarren sintagma, eta ez aposizioan doan sintagma gisa.

- Maddiren nebak **-jatorriz Bizkaikoa bera-** denda horretan egiten du lan.
- Datorren asteartean **-hilak hogeita bost-** urrezko ezteiak egingo dituzte.
- Grina-baiaren bideak, **zabal-zabala bera**, heriotza du bukaeran, eta bertutearenak, **estua eta neketsua bera**, bizia du bukaeran, eta ez amaituko den bizia, amaituko ez dena baizik . (Cervantes, *On Kixote Mantxako*).

- Horrelakoetan, benetako aposiziorik ez dagoenez, ez da komunztadurarik egiten. Euskara idatzian baino sarriago euskara mintzatuan gertatzen da fenomeno hori.

Iturri nagusia: *Euskaltzaindiaren arauak*, "109. Komunztadura aposizioetan".

- Beste batzuetan, parentesi artean ematen da bigarren sintagma. Horrelakoetan ere ez da komunztadurarik egiten, ez baitira benetako aposizioak, azalpenak baizik.

• Koloretasunaz ari bagara, esate baterako, terminoa ia nulua izango da poloko hartz zuriarentzat (**ehunetik ehun kolore bakarrekoa**), apur bat handiagoa azeri artikoarentzat (**zuria neguan eta iluna udan**) eta askoz handiagoa mihi-arrainarentzat edo olagarroarentzat (**gai baita inguruabarren arabera aldatzeko kolorea**).

Jorge Wagensberg, *Formen matxinada*, 2007